

| <i>Expte</i> | <i>Resolución</i> | | <i>Administraciones afectadas</i> | | <i>Concepto</i> |
|--------------|-------------------|------------|-----------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

10/2009 E Ebazpena

17/2008 espedientea.

Gasteizen, 2008ko maiatzaren 15ean

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Fernando de la Hucha Celador batzordekideek osaturikoak, hau

ERABAKI DU

Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Administrazioaren kontra aurkeztutako desadostasun arazoaren gainean, hau da, bi administrazioetako zeinek duen eskumena (Erakundea)k (IFK: BNNNNNNN) erreklamaturako 2006ko BEZa itzultzeko. Izan ere, Arbitraje Batzorde honetan izapidetu da auzi hori, 17/2008 zenbakiko espedientean.

I. AURREKARIAK

1. Auzi hau Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu zuen, 2008ko maiatzaren 9ko idazkariaren bidez, eta hil horren 12an sartu zen Arbitraje Batzorde honetako erregistroan. Hona hemen, laburbilduta, idazki horretan azaldutako auziaren aurrekariak:

1º. (Erakundea)k (IFK: BNNNNNNNN) (aurrerantzean, "erakundea") bere gizarte egoitza (Coruñaeko herria)tik (Gipuzkoako herria)ra aldatu zuen 2006ko urrian. Orduan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan hasi zen ordaintzen Balio Erantsiaren gaineko Zerga, maiatzaren 13ko 2002/13 Legearen bidez onartutako

| <i>Expte</i> | <i>Resolución</i> | | <i>Administraciones afectadas</i> | | <i>Concepto</i> |
|--------------|-------------------|------------|-----------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunak 27.Bat.Hirugarrena artikuluan eta 12. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2º. Gizarte egoitza aldatu arren, erakundeak Zerga Administrazioaren Estatu Agentzian aurkeztu zuen, epe barruan, hain zuzen ere 2007ko urtarrilaren 29an, 2006ko lehen hiru hiruhilekoetako BEZaren urteko aitorten laburpena (390 erdua), emaitza 4.700,02 euro itzultzea zela.

3º. AEATen Gipuzkoako Ordezkaritzako Zerga Bulego Kudeatzailearen buruak behin-behineko likidazioa egiteko akordioa hartu zuen 2007ko uztailaren 4an, eta, akordio horren arabera, ez zen ezertxo ere itzuli behar. Akordio hori aurkezpen idazkiak leialki laburbiltzen dituen funts juridiko hauetan oinarritu zen:

Bat. Erakunde aitortzaileak, 2005ean ez baititu gainditu eragiketa bolumenen 6.000.000 euroak, 2006ko ekitaldian bere zerga egoitzari dagokion administrazioan soilik ordaindu behar ditu zergak, Ekonomia Ituneko 27.Bat.Hirugarrena artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Bi. Pertsona juridikoek helbidea aldatu badute (Ekonomia Itunak 437. artikuluan pertsona fisikoentzat xedatzen duena alderantziz aplikatuta), berehala izaten ditu eraginak, eta orduantxetik bete behar dira zerga obligazioak helbide berriari dagokion administrazioan.

Hiru. Ez BEZaren 37/92 Legeak eta ez BEZaren 102/1992 Foru Dekretuak ezartzen dute helbidea lurralde erkidetik foru lurraldera edo alderantziz aldatuz gero ekitaldia banatuko denik likidazioa zatikatzeko.

Areago, urteko aitorten laburpen bakarra osatzen duten hiruhilekoetako edo hileroko aitorten-likidazioak zatitzen dira (37/1997 Legea, 164.6.Bat artikulua), eta horrek eskaera bakarrerako bide eman dezake, hain zuzen ere abenduaren 31n dagoen saldoa itzultzeko (37/1992 Legea, 115.Bat artikulua).

| <i>Expte</i> | <i>Resolución</i> | | <i>Administraciones afectadas</i> | | <i>Concepto</i> |
|--------------|-------------------|------------|-----------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

Lau. Ekonomia Itunaren Legeak ez du eragozten administrazio batetik bestera aldatzea konpentsatu beharreko saldoak, eta lurralde erkidetik foru lurraldera edo alderantziz helbidea aldatzea ez du taxutzen irteerako lurraldean jardura utzi eta lurralde berrian hasiko balitz bezala.

4º. 2007ko abuztuaren 3ko sarrera erregistroarekin, erakundeak idazki bat sartu zuen Gipuzkoako Foru Ogasunean, 28 euroko saldo negatiboa itzul ziezaiola eskatzeko. Eskaera hori ukatu egin zitzaion, Ogasun eta Finantza Departamentuaren Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuaren buruak 2007ko irailaren 28an hartutako akordioaren bidez; izan ere, haren arabera, Ekonomia Itunak 27.1. artikuluko hirugarren idatz zatian xedatzen duena abiapuntutzat hartuta, BEZaren aitorten-likidazioetara ezin alda daiteke aurreko zerga egoitzan jasandako kuotarik.

5º. Estatuko Administrazioari 2008ko martxoaren 14an jakinarazi zitzaion martxoaren 13ko 2525/13 Foru Aginduak xedatzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du aginpiderik erakundeak eskatutako itzulketa aurrera eramateko; aitzitik, Estatuko Administrazioa jotzen du horretarako eskuduntzat.

6º. 2008ko apirilaren 17ko idazkiaren bidez, AEATen Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari bereziak adierazi zuen ez dela bidezkoa Gipuzkoako Foru Aldundiak aginpiderik ez duela xedatzea; horren inguruan, adierazi zuen BEZA zerga bakarra dela lurralde erkidean eta foru lurraldean, eta zerga gaia ezin zatika daitekeela ez geografikoki eta ez denbora aldetik. Ekitaldiaren azken aldiaren soilik da bidezkoa zerga itzultzeko eskaera. Helbidea aldatzen bada eskumena ere aldatzen da, baina horrek ez dakar ondorio ekitaldia banatzea.

| <i>Expte</i> | <i>Resolución</i> | | <i>Administraciones afectadas</i> | | <i>Concepto</i> |
|--------------|-------------------|------------|-----------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

7º. 2008ko maiatzaren 6ko bilkuran hartutako akordioaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak auzia Arbitrje Batzordean azaltzea erabaki zuen.

Ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere aurkezpen idazkian azaltzen du zer arrazoibidetan oinarritu den Arbitraje Batzordeari eskatzeko “eman dezala ebazpen bat adierazteko Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerga Administrazioak ez duela aginpiderik (Erakundea)k (IKF: BNNNNNNNN) eskatutako 4.700.02 euroko saldo negatiboa itzultzeko, alegia, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion 2006ko aitopen-likidazioaren ondoriozko saldoa itzultzeko (urteko aitopen laburpeneko 390 eredua), aitopen hori aurreko aldietan jasandako BEZaren ondorio baita eta Estatu Administrazioak baitzuen aldi horietan zerga hori ordainarazteko eskumena”.

2. 2008ko iraileko 12an egindako bilkuran, Arbitraje Batzordeak auzi hau izapidetzeko onartzea erabaki zuen, eta Estatuko Administrazioari jakinaraztea. Hain zuzen ere, 2008ko urriaren 3an eman zitzaion horren berri Estatuko Administrazioari.

3. AEATEk zuzendari nagusiaren 2008ko urriaren 30eko idazkiaren bidez aurkeztu zituen alegazioak, eta 2008ko azaroaren 3an sartu zen sarrera erregistroan. Idazki horretan azaldutako egitatearen aurrekariak Gipuzkoako Foru Aldundiak auziaren aurkezpen idazkian azaldutakoak osatzen dituzte, datu hauekin:

1º. 2007ko abuztuaren 3an, erakundeak, Gipuzkoako Foru Aldundiari BEZa itzultzeko eskatzeaz bat, berraztertze errekurtso bat jarri zuen AEATen Gipuzkoako Ordezkaritzako Zergak Kudeatzeko Bulegoak 2007ko uztailaren 4an egindako behin-behineko likidazioaren kontra. Errekurtso hori atzera bota zuen, 2007ko abuztuaren 24ko akordioaren bidez.

2º. Epaitegiak atzera bota zuen erreklamazioa, 2008ko otsailaren 27ko ebazpenaren bidez, funtsezko argudio gisa hau zuela: AEATen Gipuzkoako

| Expte | Resolución | | Administraciones afectadas | | Concepto |
|---------|------------|------------|------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

Ordezkaritzak ez du eskumenik BEZa itzultzeko, BEZaren Legeak ez baitu onartzen aitortzeko dauden saldoek “banatutako ekitaldiak” likida daitezen zergadunaren zerga egoitza aldatu aurretik; beraz, erakundeak saldo horiek sartu behar zituen administrazio eskudunean egindako 2006ko lau hiruhilekoen aitorten-likidazio bakarrean. Inon ez da ageri ebazpen horren kontrako errekurtsorik jarri zuenik.

Jarraian, AEATEk bere iritzia zuzenbideko zer oinarritan funtsatu duen azaltzen du. Lehenengoan, auziaren helburua zein den adierazten du, hau da, “zehaztea zer administraziok duen eskumena zergadunak (Erakundea) (IFK: BNNNNNNNN) 2006ko BEZa dela-eta eskatutako 4.700.02 euroak ordainarazteko eta itzultzeko. Bestalde, hauxe dio AEATEk: “Orain ez da zalantzan jarri zergadunak egoitza non eta noiz ezarri duen, hau da, onartzen dira aitortutako egoitzak, aitortutako uneetan; alegia, erakundea sortu zenetik 2006-10-03 arte, zerga eta gizarte egoitza lurralde erkidean egon zen, eta ordutik aurrera Gipuzkoako foru lurraldean. Auzi honen helburua, beraz, honetan datza soil-soilik: erabakitzea zein administraziok duen eskumena adierazitako egoitza aldaketa hori egin zenean jasan ziren eta oraindik konpentsatzeko dauden kuoten BEZa bere gain hartzeko”.

4. AEATEk bere idazkian azaltzen dituen zuzenbideko oinarrietan bigarreanean, auzia ezin onar daitekeela alegatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiak (EIABA), abenduaren 28ko 2007/28 Errege Dekretu bidez onartutakoak, 9. artikuluko bigarren paragrafoan xedatzen duena oinarritzat hartuta. AEATen ustez, auzi honen zioaz jadanik erabakia emana du Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiak, 2008ko otsailaren 27ko ebazpenaren bidez —aurrekari hauetako 3. idatz zatian aipatu da—, eta erabaki horri adierazitako arauzko agindu hori aplikatu behar litzaioke, auzitegi ekonomiko-administratiboak justizia auzitegiekin parekatuta baitaude. Tesi hori, AEATen iritziz, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak 2000ko martxoaren 21ean emandako epaiak berresten du (C-110/98 eta C-147/98 gai metatuak); izan ere, Kataluniako Eskualdeko Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa jo zuen organo jurisdikzional gisa epaitu aurreko arazo bat azaltzeko.

| <i>Expte</i> | <i>Resolución</i> | | <i>Administraciones afectadas</i> | | <i>Concepto</i> |
|--------------|-------------------|------------|-----------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

5. AEATEk, alegazio idazkian ematen dituen zuzenbideko oinarrietako gainerako idatz zatietan, eztabaidaren muinari buruzko argudioak ematen ditu, eta idazkia amaitzen du Arbitraje Batzordeari honako hau erabaki dezala eskatuz:

- “Auzia ez onartzea, zuzenbideko bigarren oinarrian adierazitako arrazoiarengatik.

- modu subsidiarioan, auzia onartzen badu ere, atzera botatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren uzia, zuzenbideko hirugarren eta laugarren oinarrien arabera, eta zerga administrazio eskuduntzat Gipuzkoako Foru Ogasuna jotzea; hori horrela, harexek itzuli beharko du zergadunak itzultzeko eskatu duen 2006ko ekitaldiko BEZa. Hori, ordea, ez da eragozpen izango beharrezko egiaztapenak egiteko, kuota horiek kengarri izateko zergaren araudiak eskatzen dituen baldintza objektibo eta formalak biltzen ote dituzten erabakitzeko”.

6. Espedientea amaituta eta auzian dauden administrazioak eta erakunde interesduna jakinaren gainean jarrita, administrazioek alegazioak egin zituzten, 2009ko otsailaren 17ko idazki banatan. Idazki horiek hurrengo egunean, hilaren 18an, sartu ziren Arbitraje Batzorde honetako erregistroan. Erakunde zergadunak 2008ko otsailaren 18ko idazkiaren bidez egin zituen alegazioak, eta hurrengo egunean sartu zen sarrera erregistroan.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Auzi honen muinean sartu aurretik, beharrezkoa da aztertzea AEATEk aurrez jarritako eragozpena, hau da, Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiak orain guk erabaki behar dugun kontu honen gainean ebazpen bat eman izana. Berrito ere modu sumarioan baztertu behar dugu AEATEk lehendik ere alegatua duen gaitzespen kausa hau. Beste ebazpen batzuetan bezala (2009ko urtarrilaren 28ko 2/2009 Ebazpenaren zuzenbideko 2. oinarria eta martxoaren 6ko 4/2009

| <i>Expte</i> | <i>Resolución</i> | | <i>Administraciones afectadas</i> | | <i>Concepto</i> |
|--------------|-------------------|------------|--------------------------------------|--------------------------------------|---|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | <i>Diputación Foral Gipuzkoa</i> | <i>Administración del Estado</i> | <i>IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio</i> |

Ebazpenaren zuzenbideko 3. oinarria), soil-soilik adieraziko dugu ez dela interpretazio ahalegin handirik egin behar ondorioztatzeko auzitegi ekonomiko-administratiboak, zeinahi administratibotakoak izanik ere, ezin direla inola ere sartu “Justizia Auzitegi” izenaren barruan, nabarmen baitira organo administratiboak. AEATEk alegatutako egitatea ez da ondorio horren kontrako, eta, gainerakoan, aski jakina da Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak auzitegi ekonomiko-administratiboen legitimazioa onartu duela, epaiketa aurreko auziak haren irizpean jartzeko.

2. Hauxe da Arbitraje Batzorde honek erabaki behar duen auziaren funtsa —eta horren gainean ez dago desadostasunik auzi honetako parte diren administrazioen artean—: erabakitzea administrazio horietako zeinek duen eskumena erakundeak 2006ko lehen hiru hiruhilekoetako BEZa dela-eta AEATi aurkeztu dizkion urteko aitorten laburpenaren ondoriozko 4.700,02 euroak itzultzeko. Eztabaida sortu da erakundeak lurralde erkidetik Gipuzkoako Foru Aldundiaren lurraldera aldatu duelako egoitza. Aldaketa hori aurten gertatu da, urriaren 3an, AEATEk 2008ko urriaren 30eko alegazio idazkian zehaztu duenez. Egoitza aldaketa horren ondorio gisa, eta aurreko urtean (2005) erakundearen eragiketa guztien bolumena ez baitzen izan sei milioi eurotik gorakoa, erakundea Gipuzkoako Foru Aldundian hasi zen zergak ordaintzen, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Ekonomia Itunak, orduan indarrean zegoenak, (EI) 27.Bat.Hirugarrena artikuluan xedatzen zuenaren arabera. Bi administrazioek baztertu zituzten erakundeak aurkeztutako itzultze eskaerak, eta halaxe sortu zen eskumenen auzi negatibo hau.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak, auziaren aurkezpen idazkian, aurreko paragrafoan adierazitako erakundearen egoitza aldaketa horrek zer ondorio izan dituen azaldu eta gero, adierazten du ondorio horiek egoitza aldatzeaz bat sortu zirela, Elren 43.Zazpi artikulua pertsona fisikoentzat xedatzen duena analogiaz aplikatuta. Beraz, kontrako zentzuan, egoitza aldatu aurretik eskumena zuen administrazioari zegokion ordura arteko eskumena ere, kasu honetan Estatukoari.

| Expte | Resolución | | Administraciones afectadas | | Concepto |
|---------|------------|------------|------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

Arrazoibide horrekin jarraituz, hauxe dio Gipuzkoako Foru Aldundiak: “Balio Erantsiaren gaineko Zergak berehala sortzen duenez zerga, subjektu pasiboak administrazio eskudun bakoitzean aurkezten dituen aitorten-likidazio periodikoetan sartu beharko ditu egoitza aldatu arte sortutako BEZak, eta, modu berean, ordura arte jasandako BEZak kendu beharko ditu (kentzeko eskubidea sortzen dutenak); horren ondoriozko kendura ‘garbiaren’ arabera izango administrazio bakoitzaren eskumen izango den ‘ordainarazpenaren’ zenbatekoa.

Segidan, Foru Aldundiak, bere testiarene alde egiteko, hiru ebazpen aipatzen ditu bere idazkian, errekurtsuez ebazteko ahalmena duen organo administratibo bakoitzak emandakoak. Lehenengoa Bizkaiko FAEA Foru Auzitegi Ekonomiko-administratiboarena da, 2003ko maiatzaren 8koa (415/2002 zenbakiko erreklamazioa). Erreklamazio horretan, maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen bidez onartutako Ekonomia Ituneko 29.Sei artikuluan oinarritzen da Auzitegia, eta hauxe ondorioztatzen du: “Ez dagokio Bizkaiko Foru Aldundiari erreklamaziogileak zerga egoitza Bizkaian ez zuen garaian sortutako kenkariak itzultzea...”. Aipatutako agindu hori honelaxe idatzita zegoen:

"Kenkarien zenbatekoak sortutako kuotak gainditzen dituela-eta likidazioaldi bakoitzean sortutako kenkariak aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera egiterik izan ez duten subjektu pasiboek beren aldeko saldoa itzultzeko eska dezakete.

Foru aldundi bakoitzak edo, hala dagokionean, Estatuko Administrazioak egin beharko ditu bidezko itzulketak, dagokion zati proportzionalean”.

Aipatzekoa da transkribatutako agindu horretako bigarren paragrafoaren edukia gaur egungo Elren 29.Bost artikuluan jasota dagoela.

1981eko Elren agindu horretan oinarritzen da Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen 2003ko urtarrilaren 31ko ebazpena ere, eta ondorio berbera ateratzen du.

| Expte | Resolución | | Administraciones afectadas | | Concepto |
|---------|------------|------------|------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

Gipuzkoako Foru Aldundiak auziaren aurkezpen idazkian aipatzen duen hirugarren ebazpen administratiboa Nafarroako Administrazio Auzitegiaren 1997ko azaroaren 5ekoa da (berez, Zerga Gaiez Informatu eta Ebazteko Organora jo behar du), eta ebazpen horretan besteak beste dio ez dela bidezkoa aurreko urteetan konpentsatzeko dauden zenbatekoak zergadunak Nafarroako Foru Aldundian egin behar zuen laugarren hiruhilekoko aitortpena aldatzea, “horrek zerga zorra, kasu honetan negatiboa, administrazio batetik bestera aldatzea ekarriko lukeelako, araudia urratuta...”.

Nahiz eta aurreko ebazpenen aurrekari gisa duen balioa oso handia ez izan, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere idazkian hori aipatzeak esan nahi du bere egiten dituela horietan agertzen diren tesiak eta argudioak.

Horrez gain, Foru Aldundiak honako hau ere argudiatzen du: “Baldin eta subjektu pasibo batek zerga egoitza berriari dagokion zerga administrazioan aurkeztutako aitortpen-likidazioetara aldatzen baditu zerga egoitza beste lurralde batean zeukanean jasan zituen BEZaren kuotak, Ekonomia Itunean jasotzen den ‘ordainarazteko’ eskumena ere aldatuko da; izan ere, ‘ordainarazpen’ hori murriztu egingo da, lehenago jasandako kuoten konpentsazioagatik” (azpimarratua jatorrizkoa da).

Ondoren, Aldundiak dio Elk eragotzi egiten duela BEZa administrazioz aldatzea; izan ere, berariaz ematen du beste zerga elementu batzuk administrazio batetik bestera aldatzeko aukera (esate baterako, konturako ordainketak), eta BEZari buruz, berriz, ez dio ezertxo ere. “Bestelakorik xedatuko balu –dio Aldundiak–, zergadunak modua izango luke administrazio batean eduki lezakeen kreditu fiskala beste administrazio batera aldatzeko, eta, modu horretan, administrazio bat bidegabeki aberastuko litzateke eta besteari arrazoirik gabe egingo litzaioke kalte; hori, baina, zuzenbidearen aurkakoa da ikuspuntu guztietatik, eta, ondorioz, Itunak

| <i>Expte</i> | <i>Resolución</i> | | <i>Administraciones afectadas</i> | | <i>Concepto</i> |
|--------------|-------------------|------------|-----------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

ez du inola ere halakorik nahi, ez eta jasotzen ere.

Azkenik, Gipuzkoako Aldundiak hau argudiatzen du: “Ekonomia Itunaren 29. artikuluko seigarren idatz zatian, [BEZa] ikuskatzeko eskumenen banaketari buruzkoan, ez da zehazten administrazioek ahalmenik daukatenik eskuduna beste administrazio bat zenean sortutako ‘kreditu fiskalak’ egiaztatzeko, eta, beraz, zuzenean onartzen dituzte; horrek, ordea, babesik gabe utz ditzake, ‘aurreko administrazio eskudunak’ ez baitu interes ekonomikorik hori egiaztatzen hasteko”.

4. AEATEk, 2008ko urriaren 30eko bere idazkian, lehenik eta behin auzi honi aplikatzekoak zaizkion lege arauak transkribatzen ditu: Elren 27.Bat.Hirugarrena, 43.Zazpi eta 29.Bost artikulua, BEZaren 37/1997 Legearen (BEZL) 115.Bat artikulua eta eduki berbera duten Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerga horri buruzko 102/1992 Foru Dekretuko artikulua, kasuan-kasuan aplikatzekoa den testuarekin.

Aipatutako arau horietatik, batez ere Elren 29.Bost artikulutik, BEZaren “saldoak” (konpentsatu edo itzuli beharreko zenbatekoak) administrazioz aldatzeko arau orokorra ondorioztatzen du AEATEk: “Konpentsazioak edo itzulketak sortu diren administrazioen artean banatzen dira, eta, beraz, konpentsatu beharreko BEZaren saldorik ez da aldatu behar beste administrazio batzuetara” (idazkian azpimarratuta dago). Gero, idazki horretan bertan, AEATEk arau orokor horren funtsa azaltzen du:

“Bestela, gerta liteke [Ekonomia Itunaren Legeak] ezarritako administrazioan ez beste batean aplikatzea zerga. Gainera, saldoak beste administrazio batera aldatzeak arazo handi bat sortzen du, alegia, zergak konpentsatzen dituen administrazioak ezin egiazta dezakeela horien zenbatekoa; izan ere, konpentsatu beharreko saldoa sortu zenean beste administrazio batek zuen eskumena.

| <i>Expte</i> | <i>Resolución</i> | | <i>Administraciones afectadas</i> | | <i>Concepto</i> |
|--------------|-------------------|------------|-----------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

Bestalde, ohiz kanpoko eraginak sortuko lirateke urte batetik bestera administrazio eskudunak aldatuko balira. Hala, esate baterako subjektu pasibo batek urte batean bi administrazioetan (Estatukoan eta Nafarroakoan) ordaindu baditu zergak eta hurrengo urtean bost administrazioetan ordaindu behar baditu (aurreko bietan eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru aldundietan), ez dirudi arrazoizkoa, ez eta [Ekonomia Itunaren Legearekin] bat datorrenik ere, lehenengo ekitaldian konpentsatu beharreko saldoa bigarrenengoan ere saldo horrekin batere zerikusirik izan ez zuten administrazioen artean banatzeak.

Nolanahi ere, adierazitako arau orokor horrek topo egiten du, AEATen iritziz, BEZaren araudiarekin, eta, beraz, doitu egin behar da konpentsatu beharreko BEZaren saldoak aldatzeari edo ez aldatzeari buruz egiten den interpretazioa. Araudi horrek ez du ezer zehazten aldi zatituetako likidazioaren gainean: “ezin jo daiteke juridikoki zuzentzat likidazioaldi zatituetako” likidazioak ondorio dakartzan saldoak administrazioz aldatzeari edo ez aldatzeari buruzko edozein interpretazio, hori ez baitator bat BEZaren araudiarekin. AEATEk dioenez, “likidazioaldia ez zatitzeko” araua —eta, beraz, eransten dugu, horren esanahia, zeina ez baita agerikoa— BEZLaren 99. eta 115. artikuluen jokotik ondorioztatzen da; hain zuzen ere, artikuluen arabera, likidazioaldi bakoitzean jasandako kuotak sortutakoak baino gehiago badira, ondoko aitorpen-likidazioetan konpentsa daitezke; azken likidazioaldiari dagokion aitorpen-likidazioan, urte bakoitzeko abenduaren 31n alde zuten saldoa itzultzeko eska dezakete. Ondorioz, AEATen arabera, urteko aldi horretan baizik ezin zati liteke likidazioaldia itzulketa eskatzeko.

AEATen iritziz, saldoak administrazioz ez aldatzeko arau orokorrak badu salbuespen bat, hau da, ez direla aplikatuko baldin eta hala egiten bada BEZaren arauak beteko ez badira, eta kasu horietako bat da, hain zuzen ere, auzi hau. Kasu horietan saldoak administrazioz aldatzea onartuko ez balitz, BEZLaren

| <i>Expte</i> | <i>Resolución</i> | | <i>Administraciones afectadas</i> | | <i>Concepto</i> |
|--------------|-------------------|------------|-----------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

99. Bost artikulua ezartzen duen konpentsazioa ukatuko litzaioke subjektuari. Helbidea aldatu den hiruhilekoan ez aurrekoan konpentsatu beharreko saldoa, AEATEk dioenez, helbidea aldatu ondoren eskudun den administrazioan egin beharreko laugarren hiruhilekoko autolikidazioan sartu behar da. Izan ere, alde batetik, aldaketa hori ez da jarduera uztea —kasu horretan eskatu ahalko litzaioke aurreko administrazioari zerga itzultzeko—; eta, bestetik, kasu horietan ezin aurkez daitezke bi aitorten hiruhileko berean administrazio desberdinetan. Hain zuzen ere, Administrazioaren iritziz, BEZa kudeatzeko mekanikak eskatuko lukeena baina zergaren arauak onartzen ez dutena da subjektu pasiboak laugarren hiruhilekoa amaitu arte itxarotea, eta orduan aurkeztea aitorten-likidazioa aurreko administrazioan, han kobratzeko duen saldoa itzul diezaiola eskatuta, eta beste aitorten-likidazio bat aurkeztea administrazio berrian, helbidea aldatu zuenetik zerga aplikatzeko eskumena duen horrexetan. AEATen iritziz prozedura hori, berriz diogu, BEZaren diziplinaren kontrakoa denez, zergadunak zerga kentzeko edo itzultzeko eskubidea baliatzeko eta zergaren neutraltasun printzipioa kontuan hartzeko irtenbide bakarra da, betiere AEATen iritziz, saldoa laugarren hiruhilekoko aitortenera aldatzea (administrazio berrian egin beharrekoa), eta saldo hori itzultzeko eskatzea, baldin eta subjektu pasiboak hala aukeratu badu.

5. 5. Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2009ko otsailaren 17ko alegazio idazkian, honako hau dio: “Nahiz eta Estatuko Zerga Administrazioak onartzen duen izan daitezkeela salbuespenak aldi jakin batean zergak ordainarazteko eskumenik ez duten beste administrazio batzuei zor zaien saldoa administrazioz aldatzea galarazten duen araudian, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerga Administrazioak uste du Ekonomia Itunean adierazten den bezala kasu hauetarako erregulaziorik ez izateak, hau da, saldoa konpentsatu edo itzultzeko prozedura biderik ez izateak, ezin duela ondorio ekarri alderdi formalak jartzea Ituneko arauaren oinarri diren funtsezko alderdien gainetik, hala nola zerga jakin bat ordainarazteko eta ikuskatzeko eskumenaren gainetik”.

| Expte | Resolución | | Administraciones afectadas | | Concepto |
|---------|------------|------------|------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

Aldundiak BEZLaren 115.Bat artikulua eta dagokion foru araua modu “integratzailean” interpretatzea proposatzen du, eta onartzen du urteko azken hiruhilekoari dagokion aitorten-likidazioa aurkeztea, nahiz eta ordainarazteko eskumena aldatu, jadanik eskudun ez den administrazioak itzuli beharreko zenbatekoa itzul dezan eskatzeko.

Beste gogoeta batzuk egiteaz gain, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak 2001eko azaroaren 8an (C-338/98) emandako epaia aipatzen du Foru Aldundiak. Epaia horren arabera, dio, estatu kideek aplikatu behar dute seigarren zuzentaraua, erkidegoko araudian berriaz ezarritako xedapenak errespetatzeko beharrezko neurriak hartuta. Ebazpen horretatik, hau ondorioztatzen du foru erakundeak: “Kontuan hartuta ordainarazten duen administrazioari dagokiola zerga itzultzeko edo konpentsatzeko eskumena —iritzi horri eutsi dio zerga administrazio honek—, horretarako prozedurarik ez izateak ondorio ekarriko luke zerga harmonizatzeko printzipioak, Europar Batasuneko araudiaren azpian dauden horiek, arrazoi formalengatik urratzea.

6. AEAT, 2009ko otsailaren 17ko idazkian, irmoki tematzen da bere alegazioan, alegia, auzia ez dela onartzeko modukoa, Euskadiko Ekonomia-Arduralaritzako Epaitegiak emana baitu auzi horren gaineko ebazpena; hori, ordea, baztertu dugu jadanik, eta ez da beharrezkoa berriz aipatzea. Desadostasunaren funtsari dagokionez, AEATek 2008ko urriaren 30eko idazkian azaldu zuen arrazoibidearen funtsezkoena errepikatzen du: arau orokorra da —berriro dio arau hori onartzen duela— “konpentsatu edo itzuli beharreko saldoak sortu diren administrazio horien artean banatzen direla, eta, beraz, ezin alda daitekeela beste administrazio batzuei konpentsatu beharreko BEZaren saldorik”:

Nolanahi ere, AEATen iritiz, kasu honetan arau orokor horrek badu salbuespen bat, BEZaren araudia eta neurtraltasun printzipioa errespetatu behar direnez; izan ere, araudi horrek ez du onartzen likidazioa “aldi zatikatueta” egiterik. Ondorioz,

| <i>Expte</i> | <i>Resolución</i> | | <i>Administraciones afectadas</i> | | <i>Concepto</i> |
|--------------|-------------------|------------|-----------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

zergadunak hartzeko duen saldoa itzul diezaioten lortzeko, ezinbestekoa da saldo hori administrazio berrira aldatzea; izan ere, zergaren araudiaren arabera, administrazio horretan baizik ezin aurkez daiteke halako eskaerarik. Adierazitako salbuespen hori, dio AEATEk, administrazio berria BEZa ordainarazteko eskudun bakar bihurtzen den kasuetara mugatzen da, kasu honetan gertatzen den moduan —bi arrazoiengatik gertatu ere, egoitza aldatu delako eta eragiketa guztien bolumena ez delako sei milioi eurotik gorakoa—, aplikatzekoa den Elren testuak 27.Bat.Hirugarrena artikuluan xedatzen duenaren arabera. Halako kasuetan, “konpentsatu beharreko saldoak administrazio batetik bestera aldatu behar dira; izan ere, hala egiten ez bada, subjektu pasiboari ukatu egiten zaio konpentsatzeko eskubidea [...], agerikoa baita, bereziki hitz egiten ari garen erakundearen kasuan, zergadunak ez duela izan legezko aukerarik saldoa itzul diezaioten eskatzeko”. Bestalde, BEZaren arauen arabera, ezin aurkez daitezke aldi bereko hainbat autolikidazio administrazio batean baino gehiagotan.

AEATEk dio arau orokor hori IEren 29.Bat artikuluan oinarritzen dela. Honela dio artikuluko horrek: Zerga likidazioen emaitza dagokien administrazioei egotzi beharko zaie, lurralde bakoitzean egutegiko urtebetean lortu den kontraprestazioen zenbatekoaren arabera eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga alde batera utzita. Kontraprestazio horiek, hain zuzen ere, egindako ondasun emate eta zerbitzuei dagozkie, batzuetan zergapetu eta beste batzuetan salbuetsi egingo direnak eta, salbuetsitakoen kasuan, kenketa eskubidea dakartenak. Arau horretatik, AEATEk ondorio hau ateratzen du: “Hau da, gure ustez, hizpide dugun kasuan, hauxe da koherenteena: helbidea aldatuta [...], bidezkoa da, merkatu eragiketak 6 milioi euro baino gehiago izan ez direnez gero [Gipuzkoako Foru Aldundiak] ordainarazteko eskumen osoa bere gain hartuta, GFOk onartu behar izatea subjektu pasiboak berekin dakartzan konpentsatu beharreko zenbatekoak; zenbateko horiek ez dira jasanarazitako kuotak baizik, batez ere etorkizunean jasanarazitako diren kuotak sortzeko beharrezkoak.

| <i>Expte</i> | <i>Resolución</i> | | <i>Administraciones afectadas</i> | | <i>Concepto</i> |
|--------------|-------------------|------------|-----------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

7. Bestalde, erakundeak, 2009ko otsailaren 18ko idazkian, honako hau dio: “Gipuzkoako Foru Aldundiari BEZa itzul diezaiola eskatzeko eskubidea defendatzen du; izan ere, 390 eredia epe barruan aurkeztuta 2006ko ekitaldi osoari zegokion BEZa likidatzeko zerga obligazioa bete zuenean, Gipuzkoako Foru Lurraldean zegoen zerga egoitza”. Ondoren, adierazten du ez dela bidezkoa ekitaldia zatikatzea BEZaren teknikaren arabera likidatzeko, eta “kreditu eskubidea baliatzen du Gipuzkoako Foru Aldundian, zerga egoitzak lotune gisa jokatzen baitu zerga obligazioak zein administraziotan bete behar diren zehazteko orduan, eta itzulketa zerga obligazio horren elementu bat gehiago baita...”. Azken batean, beraz, erakundeak bat egiten du AEATen iritziarekin.

8. Auzi hau behar bezala planteatzeko, komeni da gogoratzea BEZaren sistemaren funtsezko zenbait alderdi, aski jakinak izan arren. Europako BEZaren ereduak zergaz zergako kenketaren metodoa” hartu zuen, sinpleagoa baitzen batuketa edo kenketa bidezko balio erantsiaren kalkuluaren metodoa baino. Metodo hori honetan datza: subjektu pasiboak ondasuna edo zerbitzua ekoitzi eta banatzeko prozesuaren aurreko fasean jasandakoa kentzen zaio sortutako zergari. Eragiketa hori zergadunak aldi-an-aldian, hiru hilean behin edo hilero aurkeztu behar dituen autolikidazioetan egiten da, eta hortik aterako da ordaindu beharreko zerga, diferentzia positiboa bada, edo konpentsatu edo itzuli beharreko zenbatekoa, negatiboa bada. Azken zenbateko hori zergadunak administrazioarekin duen zerga kreditua da.

Sistema horrek bigarren planoan uzten du BEZaren berehalakotasuna; izan ere, zergaren sortzapenak eta kenkaria egiteko eskubidearen sorrerak galdu egiten dute, neurri batean, beren banakotasuna, eta kontu bakar batean integratzen dira; kontu horretako saldoak sortuko du Ogasun Publikoarekiko zorra edo kreditua. Kontabilitate aldetik, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kontabilitateko Plan Orokorrean islatzen da saldo hori, kontu hauetan hurrenez hurren: 4750 (“Ogasun Publikoa BEZaren hartzekodun”) eta 4700

| Expte | Resolución | | Administraciones afectadas | | Concepto |
|---------|------------|------------|------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

(“Ogasun Publikoa BEZaren zordun”). Horregatik, BEZa zergen kategoria berezi bati dagokio, hau da, berehalakoak diren baina aldizka likidatzen diren zergen kategoriari; esate baterako, zerga iruzurraren delituaren atalasea non dagoen zehazteko (Zigor Kodearen 305.2. artikulua).

Zerga zorra edo kreditua Ogasun Publikoarekin izango du zergadunak, erakunde horrek baitu BEZa biltzeko eta kudeatzeko ahalmena. Zerga hori harmonizatzen duen erkidegoko araudiak Europar Batasuneko estatu kideak soilik hartzen ditu ahalmen horren titular gisa, eta ez du onartzen jasandako BEZaren gainean kenkariak egiteko eskubidea estatu batetik bestera aldatzea: soil-soilik kenkaria egiteko eskubidea baliatu den estatu horretan jasandako kuotak dira kengarriak. Beste estatuetan, baldintza jakin batzuetan soilik lor daiteke kuota itzultzea; Espainiaren kasuan, BEZLaren 199. artikuluan zehazten dira.

9. Ekonomia Itunak ez du berariaz aurreikusten BEZaren saldoek (konpentsatzeko edo itzultzeko dauden zenbatekoak; hau da, kontabilitateko hitzetan, EPOren 4700 kontuko saldoa) sortzen duten arazo hori, hau da, zerga egoitza lurralde erkide batetik foru lurralde batera edo alderantziz aldatu dela-eta sortzen dena, bereziki lekualdaketa horren ondorioz helbide berriko administrazioak zerga eskumen guztiak bere gain hartu behar dituenean, kasu honetan gertatzen den bezalaxe. Itunak soilik dio administrazio eskudunen artean bana daitekeela likidazioaldi bati dagokion BEZaren gaineko zerga ahalmena, hau da, “sinkroniko” dei genezakeen banaketa egin daitekeela; ez, ordea, ondoz ondoko aldietako banaketa, zeina, aurrekoari kontrajarrita, “diakroniko” dei baitezakegu.

Ekonomia Itunak banaketa “sinkronikorako” ezartzen dituen oinarrizko arauak 29. artikuluko Bat eta Bost idatz zatietan datozenak dira, eta, hain zuzen ere, horiexek aipatu dituzte auzi honetako administrazioek. Gogora dezagun zein den idatz zati horien testu berria:

| Expte | Resolución | | Administraciones afectadas | | Concepto |
|---------|------------|------------|------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

“Bat. Zerga likidazioen emaitza dagokien administrazioei egotzi beharko zaie, lurralde bakoitzean egutegiko urtebetean lortu den kontraprestazioen zenbatekoaren arabera eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga alde batera utzita. Kontraprestazio horiek, hain zuzen ere, egindako ondasun emate eta zerbitzuei dagozkie, batzuetan zergapetu eta beste batzuetan salbuetsi egingo direnak eta, salbuetsitakoen kasuan, kenketa eskubidea dakartenak.

“Bost. Bidezkoak diren itzulketak egitea administrazioen lana izango da, bakoitzari dagokion proportzioan”.

Arau horien ondoriozko banaketa sistema negozio zifra erlatiboarekiko proportzioan likidatutako kuoten edo itzuli beharreko zenbatekoen banaketan oinarritzen da (IEren 27.Bat.Bigarrena artikulua), eta administrazio eskudunak erabat bereizten ditu. Ez gatoz guztiz bat AEATEk bere bigarren alegazio idazkian aurreko idatz zatietako lehenengotik ez oso modu argian ateratzen duen ondorioarekin, zuzenbideko 6. oinarrian azaldu dugun bezala. Dirudienez, *a contrario* argumentu bat da: kasu honetan eta antzekoetan likidazioak banatzen direnez, administrazio eskudun berriak egin behar du konpentsatzeko dauden zenbateko guztien kargu.

AEATen argumentuak segurutzat hartzen du erakutsi nahi duen hori, hau da, badela saldoen eskualdaketa bat administrazioen artean. Guztiz bestela gertatzen da, ordea: Elren 27.Bat.Hirugarrena artikuluan xedatutakoaren arabera helbide aldaketak ondorio ez dakarrenean helbide berriko administrazioak eskumen guztiak bere gain hartzea (hizpide dugun honen alderantzizko kasua), ez da ezertxo ere aldatzen banaketaren alderdi materialean. Ikuskatzeko eskumenak, ordea, aldatzen dira batetik bestera, Elren 29. artikuluko Sei b) idatz zatiko arauari jarraiki. Elren 29. artikuluko Bat idatz zatiak ez du inola ere babesten BEZaren saldoa administrazio batetik bestera aldatzea, horri buruz ez baitio ezertxo ere.

| <i>Expte</i> | <i>Resolución</i> | | <i>Administraciones afectadas</i> | | <i>Concepto</i> |
|--------------|-------------------|------------|-----------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

Azaldutako argumentu horri gogoeta hau gehitzen dio AEATEk: “Subjektu pasiboak berekin dakartzan konpentsatu beharreko zenbatekoak [...] ez dira etorkizuneko kuota jasanaraziak —hala izaten dira eskuarki— sortzeko behar diren jasandako kuotak baizik”. Argumentu horretan ez du kontuan izan BEZaren sistema: konpentsatzeko edo itzultzeko saldoa sortzen lagundu duten jasandako kuota kengarriak ez dira sortu edo jasan behar beste ondasun edo zerbitzu (inputak) eskuratu delako sortutako eta jasandako BEZ gehiago sortuko dituzten etorkizuneko zerbitzuak ekoizteko, baizik eta behar beste eskuratu delako likidazioaldi berean sortutako BEZa sortu duten eragiketa zergapetuak sortzeko.

Banaketa “sinkroniko” deitu dugun horri dagokionez, BEZaren saldoen gainean administrazioen artean dagoen inkomunikazioa, gainerakoan, nabarmen dator lehen transkribatu dugun Elren 29. artikuluko Bost idatz zatiarekin.

Ez dago zalantzarik, bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak alegatzen duen bezala, BEZaren saldoak eskualdatzea onartuz gero zerga horren bilketa murriztuko dela, eta, modu paraleloan, Estatuko Administrazioa aberastuko dela, modu horretan Foru Aldundiaren esku utziko baitu hari dagokion pasibo fiskal bat; ondare aldaketa horiek, ordea, ez datoz bat zerga baliabideak zuzen banatzeko printzipioarekin, eta printzipio horrexetan oinarritzen da Ekonomia Ituna.

10. 10. Funtsean, beraz, ez BEZaren sistemak eta ez Ekonomia Itunak uzten dute saldoak administrazioen artean eskualdatzen. Gainera, zuzenbideko 4. eta 6. oinarrietan adierazi dugun bezala, printzipio edo “arau orokor” hori onartzen du AEATEk, eta arrazoi handiak ematen ditu haren alde egiteko.

Alabaina, BEZaren saldoak ez eskualdatzeko arau orokorra indarrean dagoela aitortuta ere, uste du arau horrek baduela salbuespen bat, zerga hori kudeatzeko sisteman oinarritua, eta, Estatuko Agentziaren ustez, sistema horrek ezinezko

| Expte | Resolución | | Administraciones afectadas | | Concepto |
|---------|------------|------------|------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

egiten du eskualdatze hori, zergadunari jasandako BEZa kentzeko edo itzultzeko eskubidea behin betiko ez kentzearen.

Salbuespen hori, AEATen iritziz, kasu jakin batzuetara mugatuta dago; hain zuzen ere, helbidea lurralde batetik bestera aldatu duen enpresak aurreko urtean egindako eragiketen bolumenak Elren 27.Bat.Hirugarrena artikuluan xedatzen den muga gainditzen ez duen kasuetara, “eta xurgapen edo zatiketa kasu jakin batzuetara”. Hau da, helbidea aldatu den gainerako kasu guztietan arau orokorra aplikatu behar da.

Bada, ez gatoz bat AEATen testiarekin, jarraian azalduko ditugun arrazoiengatik. Lehenengoa eta funtsezkoa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak alegatu duen bezalaxe, argumentu formalak, nola baitira BEZa kudeatzeko arauak, ezin direla jarri Ekonomia Itunaren eta BEZaren sistemaren beraren gainetik, baldin eta ez badute aukerarik ematen laugarren hiruhilekoari dagokion aitorten-likidaziora arteko zergadunaren aldeko saldoa itzul dadin eskatzeko, eta kasu honetan bezala aurreikusita ez badago bi autolikidazio bi zerga administrazioetan aurkezteko aukera. AEATen baieztapenak, hau da, saldoa eskualdatuko ez balitz zergadunari behin betiko kenduko litzaiokeela jasandako BEZa kentzeko eskubidea, badu *petitio principii* bat: kreditu hori soilik administrazio berrian egikaritu daitekeela. BEZaren neutraltasuna haustea, AEATen iritziz horixe gertatuko bailitzateke saldoa administrazio berrira eskualdatzen utziko ez balitz, ez da benetan gertatzen, saldoa itzuli egiten baita, ez honek, baizik eta aurreko administrazioak (Estatukoak, kasu honetan).

Egia esan, BEZaren arauak ez dira baieztapen honen kontrakoak: Estatuko Zerga Administrazioa dela eskuduna, kasu honetan, helbidea foru lurraldera aldatu zenean itzultzeko zegoen BEZaren saldoa itzultzeko. Kontua da arau horietan ez dela agertzen hipotesi hori, eta, horregatik, ez dutela ezartzen prozedura egokirik itzulketa burutara eramateko. Beraz, auzi honetan bada hutsune bat araubidean,

| <i>Expte</i> | <i>Resolución</i> | | <i>Administraciones afectadas</i> | | <i>Concepto</i> |
|--------------|-------------------|------------|-----------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

lehenik eta behin, aplikatzekoak diren arau materialei dagokienez, nahiz eta hori bete daitekeen, lehen esan dugun bezala, Ekonomia Ituneko printzipioetatik eta zergatik bertatik abiatuta arau egokia zein den ondorioztatuta (AEATEk “arau orokortzat” hartzen duena); eta, bigarrenik, araubidezko hutsunea dago arau materiala betetzeko jarraitu behar den prozedurari dagokionez ere, hain zuzen ere arau materialik ez dagoelako. Baina, jakina, halako prozedura araurik ez izatea ez da baliozko argudioa arau horri dagokionez. AEATEk arau hori “orokortzat” jotzen du, eta horrek esan nahi du salbuespenak dituela. Alabaina, arau absolutua da, Ekonomia Itunak segurutzat jotzen dituen BEZaren funtsezko printzipioetatik eratorria baita.

Guren iritzia funtsatzen den bigarren arrazoia da ez daukala justifikaziorik baieztatzeak AEATEk aldeztu duen salbuespena helbidea aldatu den kasu konta ahaletan soilik dela aplikagarria, hala nola hemen aztertzen ari garen kasuan, eta gainerako kasuetan arau orokorra dela aplikagarria. Subjektu pasiboen arteko aldea, eragiketa bolumen jakin bat gainditu duten edo ez kontuan hartuta, hau litzateke, izatekotan: neutraltasun falta ekarriko lukeela BEZaren aplikazioan, eta zerga hori ez lukeela itzuliko hasieran eskudun zen administrazioak.

Ondorioz, bidezkoa da Arbitraje Batzordeak adieraztea kasu honetan Estatuko Administrazioari dagokiola itzultzeko dagoen saldoa itzultzea, saldo hori sortu zenean erakunde hori baitzen BEZa ordainarazteko ahalmenaren titularra.

11. EIABAren 16.5 e) artikuluiak “ebazpena betetzeko formula” ezartzera behartzen gaitu.

Zentzu zabalean, ebazpen hau betetzeak esan nahi du Estatuko Ogasun Publikoak jasan behar duela itzulketaren finantza karga; beraz, ondorio aterako bagenu BEZa kudeatzeko arauak betetzeak ezinbestean behartzen duela Gipuzkoako Foru Aldundia izatea hori aurrera eramango duena, itzultako kopurua ordaindu beharko

| <i>Expte</i> | <i>Resolución</i> | | <i>Administraciones afectadas</i> | | <i>Concepto</i> |
|--------------|-------------------|------------|-----------------------------------|------------------------------|--|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | Diputación Foral Gipuzkoa | Administración del Estado | IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio |

dio Estatuko Administrazioak. Gisa horretako konponbidea eman zuen Arbitraje Batzorde honek aurreko ebazpen batzuetan (2009ko apirilaren 3ko 7/2009 Ebazpena eta 8/2009 Ebazpena); hain zuzen ere, iritzi genion Ituna oker aplikatzearen ondorioz onura atera zuenak konpentsatu egin behar ziola zerga bilketan murrizketa bidegabea jasan zuen administrazioari. Ebazpen horretan eragina izan zuen ados ez zeuden administrazioek adierazitako konpentsazio horren eskakizunaren inguruko eztabaidaz egin zuten planteamenduak. Dena dela, ahal den guztietan, Arbitraje Batzorde honen ebazpenak Ituneko arauen erabateko eraginkortasuna exijitzen duten neurriak hartuta bete behar dira, oker aplikatzearen ondorioak finantza aldetik konpentsatu gabe.

Kasu honetan ez da ezinbestekoa a posteriori finantza konpentsaziora jotzea. Hain zuzen ere, ebazpen hau betetzeko, soil-soilik Estatuko Administrazioak itzuli behar du erakundeak helbidea Gipuzkoako Lurralde Historikora aldatu zuenean itzultzeko zeukan BEZaren saldoa. Bi administrazioetako bakar batek ere ez du oraindik saldo hori itzuli. Kasu honetarako araurik ez dagoenez, hainbat bide formal izan daitezke: lehenik eta behin, Foru Aldundiak bere alegazio idazkian iradoki duena, hau da, onar dadila AEATi urteko azken hiruhilekoari dagokion aitorpen-likidazioa aurkeztea, saldoa itzul dezan eskatzeko. Ulertu behar da aitorpen-likidazio hori bateragarria izango litzatekeela erakundeak Gipuzkoako Foru Ogasunari aurkeztu beharko liokeenarekin. Are errazagoa litzateke zergadunak AEATi idazki bat aurkeztea saldoa itzul diezaiola eskatzeko Jakina, eskaera hori egiaztatu egin beharko litzateke, AEATEk bere alegazio idazkiko lehen eskaeran egiten duen salbuespenaren arabera; are justifikatuagoa da hori, hari baitagokio, ebazpen honen arabera, saldoa itzultzea.

Bi ebazpen horiek bat datoz; izan ere, azken batean, labur litezke esanez erakundeak saldoa itzultzeko eskaera aurkeztu beharko diola AEATi, eta hark onartu egin beharko duela; hori, berriro diogu, ez da eragozpen izango eskatutako itzulketa legearen arabera dela egiaztatzeko ahalmena baliatzeko. Konponbide

| <i>Expte</i> | <i>Resolución</i> | | <i>Administraciones afectadas</i> | | <i>Concepto</i> |
|--------------|-------------------|------------|--------------------------------------|--------------------------------------|---|
| 17/2008 | R10/2009 | 15/05/2009 | <i>Diputación Foral Gipuzkoa</i> | <i>Administración del Estado</i> | <i>IVA. Traslado de saldos pendientes de una Administración a otra en caso de cambio de domicilio</i> |

horretarako ez da komenigarria erakundeak bere alegazio idazkian adierazi izana eskubidea duela Gipuzkoako Foru Aldundiari saldoa itzul diezaion eskatzeko, adierazpen horrek ez baitu eraginik sortu zen prozedura esparrutik kanpo.

Logikoa denez, konponbide hau bi aldaeretako batean ere ez dator bat BEZa kudeatzeko sistema arautzen duten arauekin, eta hori ez da arlo horretan, lehenago adierazi dugun bezala, dagoen hutsunearen ondorio bat baino. Halako hutsunerik ez balitz, ez zen auzi hau sortuko.

Horren arabera, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKI DU

Adieraztea Estatuko Administrazioa dela eskuduna (Erakundea)ri (IFK: BNNNNNNN) 2006ko lehen hiru hiruhilekoetako likidazioan haren alde sortutako saldoa itzultzeko, guztira 4.700,02 euro. Hori ez da eragozpen izango Administrazioak saldo hori egiaztatzeko ahalmena baliatzeko.

Ebazpen hau betetzeko, zergadunak adierazitako zenbatekoa itzultzeko eskaera aurkeztuko dio AEATi.